

DEIALDIA

Sirha
2015
Lyon, Frantzia

Egunak: 2015ko urtarrilaren 24tik 28ra.

Lekua: EUREXPO Erakusketa eta Konbentzio Zentroa, Lyon.

Aldizkakotasuna: Bi urtean behin.

Sektorea: Elikadura Industria oro har.

Parte-hartzeko azken eguna: 2014ko uztailak 16.

Parte-hartzeko prezioa: 3.000 € +BEZa.

DEIALDI HONETAN:

Merkatuko informazioa

Eskainitako zerbitzuak

Parte-hartzaileen hautaketa

Parte-hartze baldintzak

Parte-hartze kuota

Izen-emate fitxa

Euskal Elikadura Industria kanpoan sustatzeko ekintzen barruan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak bigarren aldiz antolatu du, jarraian, euskal enpresen parte-hartze taldekaturik Nazioarteko Ostalaritza, Catering, Sukaldaritza eta Elikaduraren SIRHA 2015 azokan.

Eusko Jaurlaritzak 108 m²-ko espazioa edukiko du 2015ko SIRHA azokan, **erakusmahai individual batekin** parte hartu nahi duten **elikadura industriako euskal enpresentzat**. Erakusmahaia **Nazioarteko Pabiloian**.

Merkatuko informazioa

Erakusketa gunea: 120.000 m²

185.450 profesional

2013ko erakusketariak: 2.980 enpresa

138 herrialde eta 86 herrialdetako 18.715 sukaldari

Frantzia ondoan dugunez eta horren azpiegiturak direla-eta, estrategikoki kokatuta dago gure esportazioentzat, eta Europako beste hainbat herrialdetarako ate ere bada. Hirurogei milioi inguru laguneko merkatua du, eta lehen helmuga da Espainiako elikagaien esportaziorako; gourmet merkatu nagusietako bat dela esan daiteke, alegia.

Arrain-kontserbek posizionamendu ona dute. Heltze-fasean egon arren, kontsumo-maila altuan mantentzeko berezitasuna dute.

Plater prestatuen sektorea merkatuko gourmet nitxoan dago, horren kalitate eta prezioagatik. Kontserbako elikagaien eta janari prestatuen Frantziako kontsumoa nazioko produkzioa baino handiagoa da; horregatik, etengabe ari dira handitzen horrelako produktuen inportazioak.

Gozoek eskaera handia dute Frantzian, eta garrantzi handia ematen diote hainbat produkturen jatorriari, kakaoarenari eta txokolateenei besteak beste.

Sirha azoka nazioarte osoan da garrantzitsua elikagai industriarentzat; profesionalentzat da, eta berebiziko garrantzia dute gastronomiak eta gourmet produktuek. Bi urtean behin izaten da azoka, eta elikadura sektoreko ordezkariak parte hartzen dute, joera eta produktu berriak deskubritzeko, merkatuaren aurrerapenak ikusteko eta hornitzaile berriak ezagutzeko. Elikadurak ez ezik, ostalaritzak eta sukaldaritzak ere leku berezia dute.

ORDUTEGIA: 09.00-18.00.

ERAKUSKETA-EREMUA: 120.000 m².

2013 ERAKUSKETARIAK: 2.980 enpresa.

2013KO BISITARI ESPEZIALIZATUAK:

185.450tik gorako profesional, horietatik 23.409 internaziolak 138 herrialdetatik etorritakoak eta 86 herrialdetako 18.715 sukaldari. Bisitari-kopurua %14 hazi zen, 2011ko azokarekin alderatuta.

Azokaren esparruan banatzen diren **SARIAK:** Bocuse d'Or, Gozogintzako Munduko Kopa, eta Cateringaren Europako Kopa; beraz, mundu osoko sukaldariak erakartzen ditu azokak, besteak beste.

Azokaren web gunea: www.sirha.com.

Eskeinitako zerbitzuak

- [1\) Eremuaren kontratazioa](#)
- [2\) Dekorazioa](#)
- [3\) Salgaien garraioa](#)
- [4\) Azokak iraun bitarteko zaintza](#)

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:

Eremuaren kontratazioa

Enpresa erakusketari bakoitzak 9m² inguruko erakusmahai pertsonalizatua edukiko du.

Dekorazioa

Erakusmahaiaren dekorazioa eta oinarrizko elementuak berdinak izango dira Euskal Herriko pabiloiko erakusketari guztientzat; honako hauek, alegia:

- Mahaia eta 4 aulkia
- Mostradorea
- Enpresa erakusketariaren errotulua
- Konexio elektrikoa
- Hozkailua duen biltegia

Erakusmahai bakoitzeko potentzia elektrikoari eta gehieneko kontsumoei dagokienez, muga bat egongo da. Parte hartzeko izapideak hasitakoan emango zaie erakusketariei informazio honen berri.

Oharra: *erakusketari bakoitzak dekoratzailearekin zuzenean kontratatuko du oinarrizko altzarien, elementu elektrikoaren edo erakusmahaiaren behar elektrikoaren inguruko edozein aldaketa; erakusketariak ordainduko du kostu erantsi hori, eta dekoratzaileak zuzenean fakturatuko dio zerbitzua.*

Salgaien garraioa

Eusko Jaurlaritzak salgaien garraio multzokatua antolatuko du, garraiolariak adierazitako leku komunitik erakusmahairaino.

Salgaien bidalketaren kostua garraiolariak fakturatuko du, eta enpresa erakusketariak ordainduko.

Unean-unean adieraziko dira garraio-enpresa esleipendunaren datuak.

Azokak iraun bitarteko zaintza

Eusko Jaurlaritzak koordinatuko du ekintza behar bezala garatzeko beharrezkoak diren zerbitzu guztien kontratazioa.



Eskeinitako zerbitzuak

[5\) Azokako katalogoan sartzea](#)

[6\) Komunikazio-kanpaina](#)

[7\) Pabiloia mantentzeko lanak](#)

[8\) Hozkailuak eta bestelako
etxetresna elektrikoak](#)

Azokako katalogoan sartzea

Eusko Jurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusketari guztiak azokaren antolatzaileek egiten duten katalogo ofizialean ager daitezen, azokako erakusketari guztiak agertzen baitira bertan (izen-emate fitxan jasotako datuak agertuko dira).

Komunikazio-kanpaina

Eusko Jurlaritzak komunikazio-kanpaina masiboa egingo du pabiloiaren kokapen zehatzaren eta enpresa erakustarien berri emateko, horiek ikustera joatera gonbidatuz.

Pabiloia mantentzeko lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura, eta abar)

Eusko Jurlaritza arduratuko da garbiketaz, elektrizitateaz, uraz eta, oro har, pabiloia behar bezala zaintzeaz. Dena dela, enpresa bakoitza arduratuko da bere erakusmahaia txukun edukitzeaz.

Hozkailuak eta bestelako etxetresna elektrikoak

Erakusketariak kontratatuko ditu behar dituen hozkailuak eta etxetresna elektrikoak. Eusko Jurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila enpresen zerbitzura dago zerbitzu horien kontratazioa koordinatzeko, baina erakusketariari fakturatuko zaizkio zuzenean.

Parte-hartzaileen hautaketa

Parte hartzeko eskaerak jaso ondoren eta, eskaera egin duten enpresak nahiz produktuak, eta helmuga bakoitzean egingo diren ekintzak kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak hautatuko ditu parte-hartzaileak; betiere, promozio orokor eta eraginkorra egiteko eta gure elikadura sektorearen mailarekin bat datorren irudia transmititzeko.

Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko dio enpresa bakoitzari horren izen-ematea onartu den edo ez.

Bidaia eta ostatu-hartzea

Ekintza honetan **ez daude sartuta** joan-etorri eta ostatu gastuak. Dena dela, Saila enpresen zerbitzura dago bidaia eta ostatua koordinatzen laguntzeko, enpresa erakusketariak hala eskatuz gero; kasu horretan, indibidualki fakturatuko zaio enpresa bakoitzari.

GARRANTZITSUA:

Izen-ematea formalki gauzatzat emateko, ESKATUTAKOA GIRI GUZTIAK bidali behar dira; edozein ondoriotarako, izen-ematearen ordainketa-eguna hartuko da izen-emate eguntzat.

Eskatutako agiriak bidaltzeak EZ DAKAR enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartzea; izan ere, gutxieneko enpresa-kopuru bat behar da ekintza egiteko. Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko dio enpresa bakoitzari horren izen-ematea onartu den edo ez.

FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, EUSKAL HERRIKO PABILOIAN SARTU IZANAREN JAKINARAZPENA, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN DION ENPRESAK ORDAINDUTAKO GUZTIA (%100) GALDUKO DU. Ezinbesteko kasuetan bakarrik egongo da enpresak emandako arrazoiak aztertzeko eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera.

Honako kasu hauetan bakarrik itzuliko da enpresek ordaindutakoa:

- Enpresa erakusketariak eskatutako espazioa Azokaren antolatzaileek Eusko Jaurlaritzari emandakoa baino handiagoa bada, enpresak eskubidea edukiko du alde aurretik ordaindutako izen-emate kuota itzul diezaioten.
- Halabeharrez edo parte-hartzaile kopuru nahikoa ez edukitzeagatik, Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartzeari uko egiten badio, enpresek eskubidea edukiko dute ordaindutako guztia (%100) itzul diezaieten.



Parte-hartze baldintzak

Egoitza soziala Euskal Herrian duten eta Eusko Jaurlaritzako Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Erregistroan inskribatuta dauden ekoizpen-enpresek bakarrik parte har dezakete ekintza honetan.

Tokiko euskal produktuaren motor diren enpresen aldeko diskriminazio positiboa egin ahal izango da.

Ezingo da, inolaz ere, beste autonomia erkidegoetako produkturik aipatu edo aurkeztu.

Azoka baino lehen

- Enpresako ordezkari bat joateko eta kuota ordaintzeko konpromisoa; beraz, Euskal Herriko pabiloian sartu izana jakinarazi eta gero ezin da ekintzan baja eman. Ezinbesteko kasuetan soilik baloratuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzea aztertu.
- Enpresek derrigor egon behar dute bertan muntaketa-egunean, adierazitako orduan produktuak jasotzeko eta erakusmahaiak azokaren inaugurazioa hasi baino dezente lehenago dekoratzeko.

Azokak iraun bitartean:

- Ikusgai jarriko diren produktuak Euskal Herrian egindakoak izango dira.

Azokaren ondoren

- Ebaluazio-inkesta bete, eta azokako koordinatzaileak esandako epean itzuliko da.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak sektorea merkatu horretan babesteko egindako apustu garbiaren ondorio da SIRHA 2015 azokako parte-hartzea, sektoreak azoka horretan erakutsitako interesa eta euskal enpresen aurreko edizioko balorazio positiboak aintzat hartuta.

Parte-hartze kuota

Izen-emate fitxa behar bezela beteta

Kuotaren ordainagiria

Izen-emate azken eguna: 2014ko uztailaren 16a

Eusko Jaurlaritzako Sailak jarduera horri dagokion diru-laguntzaren ehunekoa aplikatu ondoren, ondoren adierazitako zenbatekoa ordaindu beharko du enpresak, erakusmahai indibidualari dagokionez: **3.000 € + %21 BEZa = 3.630 € (BEZ barne).**

Parte-hartze kuota epe bakarrean ordainduko da. Parte hartu nahi baduzu, lehenbailehen bete izen-emate fitxa, leku-kopurua mugatua baita, eta bidali izen-emate fitxan agertzen den fax-zenbakira edota posta elektronikoko helbidera:

1. Behar bezela bete honekin batera doa izen-emate fitxa.

2. Izen-emate kuotaren ordainagiria ere bidali.

Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da.

Kontzeptua: "SIRHA 2015 + Enpresaren izena"

Kontu zenbakia: ES49-3035-0179-61-1791069900 HAZI Fundazioaren izenean (CAJA LABORAL KUTXA). Caja Laboral Kutxaren Bic: CLPEES2MXXX.

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa izen-emate agirien jasotze hurrenkeraren arabera egingo da.

Hazi Fundazioaren Finantza Sailak egindako ordainketen faktura bidaliko dizu ekintza amaitu ondoren.

Izen emateko azken eguna: 2014ko uztailaren 16a.

Izen-emate fitxa

Sirha 2015

[aurkibidera itzuli](#)



Izen komertziala:

Izen soziala:

IFK:

Nek. eta Elik. Ind. Erregistroa (RIA):

Helbidea:

P.K.-Herria:

Probintzia:

Tel:

E-mail:

Fax:

Web:

Enpresak azoka honetarako duen arduraduna:

Sakelako telefonoa:

Ikusgai jarriko diren produktuak eta markak:

Erakusmahaiaren errotulua:

Enpresaren izena, KATALOGO OFIZIALERAKO:

Data, sinadura eta enpresaren zigilua:

Behar bezala bete eta **2014ko uztailaren 16a baino lehen** bidali posta elektronikoz bidez noragoitia@camarabilbao.com helbide elektronikora edo **94 422 0061** fax zenbakira.